

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

COVID-19ak sortutako osasun larrialdiko krisiaren eragina arintzeko laguntzen oinarri arautzaileak. Laguntza horiek Kanpezuko udalerriko ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetarako dira

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko alarma egoera ezartzen da, eta birusaren zabalkundeari aurre egiteko askotariko neurriak jasotzen dira.

2020ko urriaren 26an, indarrean jarri zen Lehendakariaren 36/2020 Dekretua, prebentzioko berariazko neurriak zehazten dituena egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko alarma egoera ezartzearen esparruan. Dekretu horren arabera, ostalaritzako eta jatetxeetako sektoreak neurri murriztaileak betetzen jarraitu behar du, eta egoera horrek jarduera behar bezala egiten eragozten die.

2020ko azaroaren 6an, Lehendakariaren 38/2020 Dekretuaren bidez, 36/2020 Dekretuaren kautelazko eta babesteko neurrien 9. idatz zatia aldatzen da. Horren arabera, erabaki da ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuetan, jatetxeetan, txokoetan eta elkarte gastronomikoetan pertsonentzako zerbitzua erabat ixtea, hoteletan eta antzeko beste establezimenduetan ostatu hartutako bezeroen zerbitzurako diren bertako jantokiak izan ezik. Hala, etxerako zerbitzua prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko alde aurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte. Itxieratik salbuetsita geratzen dira gasolindegietako eta zerbitzuguneetako jatetxe zerbitzuak errepidez zirkulatzen ari diren pertsonentzat, osasun zentro eta zerbitzuetakoak, zerbitzu soziosanitarioetakoak, eskola, lan eta unibertsitateko egoitzetako jantokiak eta izaera sozialeko jantoki zerbitzuak. Halaber, kafetegi zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko establezimenduek ezin izango dute zerbitzu hori eskaini, eramatekoa izan ezik.

Kanpezuko Udalak beharrezkoa ikusten du kreditua izatea eta dirulaguntzak onartzea ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduei laguntzeko (neurri murriztaileek direla-eta ezin izan dute beren jarduera ohiko eran egin) eta instalazioak ixteak eragin dizkien kalteak arintzeko.

1. Dirulaguntzaren xedea

Lehia bidezko dirulaguntzen deialdi honen helburua da, COVID-19aren bilakaeraren ondoriozko egoerak arintze aldera, ostalaritza eta jatetxeetako establezimenduak aldi baterako itxi ondoren sortutako kalteak arintzeko diru-laguntzak ematea, baldin eta haien jarduera ekonomikoa Kanpezun egiten dela ziurtatzen bada.

2. Dirulaguntzaren onuradunak

Dirulaguntzaren onuradun izango dira Kanpezuko ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetako titularrak, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, baldin eta Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak, prebentzioko berariazko neurriak zehazten dituenak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko alarma egoera ezartzearen esparruan, ezarritako murrizketei lotuta badaude, eta oinarri horien 4. puntuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntza horretarako sei mila eta seiehun euro (6.600 euro) baliatuko dira.
2. Eskatzaile eta jarduera bakoitzak gehienez seiehun euroko (600 euro) dirulaguntza jaso ahalko du.

3. Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu bakoitzeko dirulaguntza bakarra emango da, jarduera bertan egiten duten eta langile autonomoen araubide berezian izena emanda dauden pertsonen kopurua edozein dela ere.

Establezimendu horietan egindako edozein jarduera ekonomikoren titulartasuna pertsona fisiko bati baino gehiagori badagokio, dirulaguntzaren zenbatekoa banatuko da titularrek aurkeztutako eskaeren arabera, modu proportzionalan, eta eskaera bakoitzak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du. Establezimendu bakoitzeko dirulaguntzak ez du inoiz ezarritako gehieneko muga gaindituko.

Neurri murriztaileek eragindako establezimenduetako batean egiten den jarduera ekonomikoa pertsona juridiko baten titulartasuneko bada, dirulaguntza bakarra emango da establezimendu horretarako; gainera, ezetsi egingo da diruz lagundutako pertsona juridikoaren establezimendu berean lan egiten duten langile autonomoen araubide bereziari atxikitako pertsona fisikoek aurkeztutako edozein banan-banako dirulaguntza eskaera.

4. Laguntza eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak

Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak, prebentzioko berariazko neurriak zehazten dituenak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko alarma egoera ezartzearen esparruan, ezarritako mugei lotutako ostalaritzako eta jatetxeetako jarduerak egiten dituzten establezimenduak.

1. Egindako jarduera ekonomikoaren helbidea 2020ko azaroaren 6a baino lehen Kanpezun zegoela ziurtatzea.

2. Jardueraren titulartasuna pertsona fisikoei badagokie, eskatzaileak alta emanda egon beharko du langile autonomoen araubide berezian eta hango kuotak ordainduta; gainera, egunean izan beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak.

Titulartasuna pertsona juridikoari badagokio, egunean izan beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak.

5. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak 15 eguneko epean aurkeztu ahalko dira ALHAOn deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Oro har, pertsona fisiko edo juridikoek bete beharko dituzte azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzenak, eta hura garatzen duen erregelamenduak eskatutako baldintzak.

Eskabideak izapidetze telematikoaren bidez aurkeztu beharko dira, dagokion sinadura elektronikorekin, edo posta arruntaren bidez, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen eskabide ereduaren arabera, edo, bestela, aurrez aurre Udalaren bulegoetan.

Eskabidea pertsona fisiko batek egiten badu, beste pertsona fisiko edo juridiko baten ordezkari gisa, zer ordezkartzatan jarduten duen egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

6. Beharrezkoak diren agiriak

Dirulaguntza eskabidearekin batera (I. eredu) agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Neurri murriztaileek eragindako ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduak, beren jarduera ohiko eran egiten eragozten dietenak, Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.

a) Pertsona fisikoen titulartasuneko jarduerak:

1) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren alta historikoa, murrizketei lotuta dagoen jarduera ekonomikoa ostalaritzako eta jatetxeetako jarduerari dagozkien epigrafeetan sartu dela frogatzeko. Haiek neurri murriztailei lotuta daude, eta jardueraren helbidea Kanpezuko udalerrian dago.

2) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin eta Arabako Foru Ogasunarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

3) Zinpeko aitorten izenpetua (II. eredua).

b) Pertsona juridikoen titulartasuneko jarduerak:

1) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta historikoa, murrizketei lotuta dagoen jarduera ekonomikoa ostalaritzako eta jatetxeetako jarduerari dagozkien epigrafeetan sartu dela frogatzeko. Haiek neurri murriztaileei lotuta daude, eta jardueraren helbidea Kanpezuko udalerrian dago.

2) Pertsona juridikoak eta pertsona administratzaileak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin eta Arabako Foru Ogasunarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

3) Zinpeko aitorten izenpetua (II. eredua).

4) Eskatzailearen ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiria.

7. Instrukzioa eta proposamena

Idazkaritza-kontuhartzaitzak egingo du deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen instrukzioa. Hura amaitzean, dagokion ebazpen proposamena egingo du.

8. Ebazpena

1. Dirulaguntzak gehienez ere 230.480000 aurrekontu partidaren mugaraino emango dira (6.600 euro).

2. Esleitutako partida baino zenbateko handiagoko dirulaguntzak eskatuz gero, adierazitako mugarekiko proportzioan dagokion dirulaguntza emango zaio eskatzaile bakoitzari, ezarritako gehieneko zenbatekoa onartutako eskatzaileen artean zatituz.

3. Alkatetza izango da oinarri hauek arautzen dituen dirulaguntzak emateko espedientea ebazteko Udaleko organo eskuduna.

4. Prozeduraren ebazpena banaka jakinaraziko zaie pertsona edo entitate interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 41.1 artikuluan ezarritakoa betez. Horrek ez du eragozten Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen emandako dirulaguntzak argitaratzea.

9. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste herri administrazio batzuek abian jar ditzaketan laguntzekin, betiere COVID-19ak eragindako galera baino dirulaguntza gehiago jasotzen ez bada.

Hala badagokio, 38/2003 dirulaguntzen araudian ezarritako itzultzeko prozedura abian jarriko da.

10. Dirulaguntza ordaintzea

Emandako dirulaguntza banku transferentziaren bidez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu korrontean.

11. Emandako laguntzaren helburua egiaztatzea

Laguntzen onuradunek agiri bidez egiaztatu beharko dute emandako laguntza instalazioak ixteak eragindako kalteak arintzeko erabili dela.

Agiri horiek onuradunak aurkeztu beharko du laguntza ematen denetik hilabeteko epean.

Epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da alde onuradunak hala eskatzen badu, baldin eta luzapen hori justifikatzen duen inguruabarririk badago. Horretarako, alde onuradunak luzapen hori hilabetezko hasierako epea igaro baino lehen eskatu beharko du.

Laguntzen xedea agiri bidez egiaztatzeko epea igaro eta onuradunak ez badu helburu hori justifikatu, edo zati batean justifikatu ez badu, onuradunak justifikatu ez duen laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko du.

12. Administrazioak aurkeztutako agiriak berrikusteko eta ikuskatzeko duen eskubidea

Kanpezuko Udalak beretzat gordetzen du dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako zinpeko aitortopenean jasotzen dituen datuak egiazkoak direla egiaztatzeko eskubidea. Horretarako, Udal horrek agiri gehiago eskatu ahalko ditu prozeduraren edozein unetan. Onuradunek eskatutako agiriak aurkezten ez badituzte, prozeduran atzera egiten dutela iritziko da, eta, hala badagokio, jasotako dirulaguntza itzuli beharko dute.

13. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, laguntza horiek bete beharko dute azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, eta hura garatzen duen erregelamenduak xedatutakoa.

Kanpezu, 2020ko azaroaren 16a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO

I. ERANSKINA**DEIALDIA, KORONABIRUSAREN (COVID-19) BILAKAERAK ERAGINDAKO
EGOERAK ARINTZE ALDERA OSTALARITZAKO ETA JATETXEETAKO
ESTABLEZIMENDUEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO**

Izena eta abizenak	IFZ
Helbidea	Telefonoa

Entitatea ordezkatzuz

Izena	IFZ/IFK	
Helbidea		
Telefonoa	Faxa	Posta elektronikoa

Dirulaguntza sartzeko datuak

Banketxea	Kontu zenbakia															
	E	S														

Kanpezu,(e) koren ...(a).

Izenpea

Erantsi beharreko agiriak

Eskabide honekin batera, deialdi honen oinarrien 6. puntuan jasotako beharrezko agiriak aurkeztuko dira.

Datuak babestea

Bere datu pertsonalak fitxategietan sartuko dira Udaleko kudeaketako berezko zereginak betetzeko. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aitortzen dituen eskubideak erabil ditzake. Horretarako, idatzi bat bidali behar du udal erregistrora (Samuel Picaza plaza 1, Kanpezu).

Onartzen du bere datuak herri administrazio guztiei lagatzea, Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutako ondorioetarako, eta Arabako Foru Ogasunari, zerga ondorioetarako.